

3. Funtsezko elkarteak:

Aliantza klabeak azaltzeko, hurrengo kontzeptuak azpimarratu behar ditugu:

- **Gu gara enpresaren funtsezko bazkideak** erabaki dugulako gure diruarekin proiektua hastea, baina **dirua behar izaterakoan bankuari eskatuko genioke.**

Kapitalaz gain, **bakoitzak enpresarentzat ekarpena ekarriko du, bakoitzaren abileziaren arabera:**

Alainek==> Kudeaketa: kostuen eta irabazien kudeaketa, gure enpresarekin lotutako tratuak aurrera eraman (marketing-a, beherapenak, kolaborazioak...)

Iñigok==> Hasieran **produktuaren eta web gunearen diseinua, gero, web gunearen kudeaketa.**

Jonek==> Makineriarekin lotutakoa, hots, **produktuaren ekoizpena kontrolatzea** eta **makineriaren funtzionamendua** ondo dagoen begiratzea.

Noainek==> Produktua sortzeko **beharrezko materialak erostea** eta **produktuaren banaketa.**

- Gure produktua eta produktuaren belkroa sortzeko **beharrezko materialak emango dizkiguten enpresak** dira hornitzaile nagusiak. Batez ere **“Koopera”** izango litzateke garrantzitsuenetarikoa, **birziklatutako oihal horietaz hornituko lizkigukeelako.**
- Gure bazkideetatik lortzen dugun **baliabidea dirua** da, hau da, **bazkideak diru iturriak** dira (bazkideak gu eta bankua garelako, eta hornitzaileek materialak ematen dizkigute baina ez dira bazkideak).
- Behar ditugun baliabideak ematen dizkigun hornitzaileari **kantitate handietan erostean prezio berezia lortu** dezakegu edo bestela hornitzaile horrekin **esklusibotasuna negoziatu**, gure enpresari soilik

horni diezaion baliabideak. Horrela bi enpresek irabaziak lortzen ditugu. Horrela, hornitzaile baten **esklusibotasuna lortuz** baliabiderik gabe geratzeko **arriskuak murrizten ditugu**.

- Gure produktuak egiteko **makinak garestiak direnez beste enpresa batekin akordio bat egin** beharko dugu. Modu horretan enpresa horrek **makina horiek hornituko dizkigu alokatuz**. Zenbait makina mota behar ditugu: **josteko makina industrialak eta produkzioko zinta transportadorea**, besteak beste.